

 **Bizkaia**

dema

enplegu eta ekintzaitza foru agentzia

txostena 2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 **Bizkaia**

enplegua, gizarte inklusioa eta
berdintasuna sustatzeko saila
departamento de empleo,
inclusión social e igualdad





Duela bi urte, gure Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentziak 30 urte bete zituenean, merezi zuen bezala ospatu genuen, atzera begiratu eta Bizkaiko hainbeste jende eta enpresaren alde egindako lan guztiaren errepasoa eginez.

Baina DEMAK -Marie Curiek esan zuen bezala- egiteke geratzen zaiona asko dela ikusi behar du eta, horregatik, etorkizunari eta aurrean genituen erroinei ere erreparatu genien. Inor ez zen gai izan COVID19aren pandemiarekin zer gertatuko zitzaigun imajinatzeko. Mundu mailako joko arauak aldatu dizkigute osasun, ekonomia eta gizarte arloetan. Bazetozela genekien aldaketak bizkortu eta azkartu egin zaizkigu baina, aldi berean, aurrean jarri zaizkigu aurreikusitako gabeko beste aldaketa batzuk. Funtsezko gauzak oso agerian geratu dira.

DEMA ez da errealitate berri horretatik kanpo geratzen, ezin du eta ez du horrela izan behar. DEMA gizarte eragilea da eta, horregatik, bere ingurunea baino azkarrago egokitu behar du ingurune horren beharrei erantzuteko. Gure misioa betetzen jarraitu nahi dugu eta, horregatik, erakunde osoaren onena jarri behar dugu aurrera egingo duen gizarte aldatzen laguntzeko, lankidetzan aritzeko eta gizarte horrekin bat egiteko. Ezagutza handia eta esperientzia metatua egon daude, eta aldaketa sozialerako palanka bihur daitezke.

Gure funtsa ez da aldatuko, ibilbide sendoa baitauek egokitzapenean, berrikuntzan, pertsonen aldeko apustuan; enpresa-proiektuetan eta ekintzaitza-proiektuetan laguntzea, ahalegin handia egin ondoren errealitate bihurtzen diren amets txiki horietan, etengabeko hobekuntzako enplegua sortzen laguntzean.

Berriro ere, egokitzen ari gara. Administrazioek, enpresa- eta gizarte-ehunak bezala, gure prozedurak, ohiturak, protokoloak eta jardunak aldatu ditugu. Guztiok egin dugu, hala behartuta eta bizirik irauteko. Birusak hain gogor jo zuen 2020ko hilabete horietan ahalegin handia egin genuen gure programek aktibo eta funtzionamenduan jarrai zezaten, eta ekimen birtualen, prestakuntza birtualaren, telefono bidezko ohiko kontaktuaren, bidekonferentzien eta abarren aldeko apustua egin genuen. Gure helburua eta lehentasuna inor kanpoan uztea izan zen eta da.

Eta gure programa tradizionalak garatzen jarraitzen dugu, Abian, enpresa-ekimen berriak abian jartzeko eta laguntzeko programa, enpresak sendotzeko programak, kultura ekintzailea pizteko programak (Enpresari, LHko ikasle gazteen artean); halaber, metodologia berriekin jarraitzen dugu DEMAN finkatu diren Anezka, enplegu-anezken programekin. Eta ekintza berrien



Teresa Laespada
Enplegua, Gizarte Inklusioa
eta Berdintasuna Sailaren
Foru Diputatua

aldeko apustua egin dugu, hala nola Laborlan proiektua, "Enplegu- eta prestakuntza-programa mistoen bidez laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzeko laborategia". Eta erronka berriak sortzen jarraituko dugu, programa berriak, gure etorkizun hurbilean enpresa-transmisioko programetan ere zentratuko garelako.

Jardueraren oinarrian erakunde osoak pertsoneri laguntzen jarraitzeko duen nahia dago, dela ekintzaitzetan jardun nahi dutenei, dela enplegu egokiak lortu behar dituztenei eta arreta berezia jarrita ahulenak eta zurgarrienak direnei, krisi hau gehien kolpatzen ari direnei.

Horretan guztian erabat jabetzen gara ekoizpen-ehunaren eta enpresen eginkizun nagusiaz. Administrazio garez, okupagarritasun-ekosistema bat sortzeko gai izan behar dugu, enpresak eta enplegataleak, batetik, eta langileak, bestetik, elkarren artean egokitu ahal izateko. Enplegu-politikak topaketa hori gertatzea erraztu behar du, pertsonak dauden ekosisteman lan egiteko prest egotea, enpresek eskatzen dituzten profil profesionalak aurkitzea, eman dugun araudiaren, legediaren eta babesaren esparruan. Enpresak nahitaezkoak dira ekuazio honetan. Horrela ulertu dugu buru naizen Sailean.

Ongizatearen gizarte baten parte gara, non enpleguaren itun soziala proiektu berriekin, egiteko modu berriekin eta etengabeko berrikuntzarekin eguneratzen den, oinarritzko funtsean zalantzan jartzen ez dena: aberastasunaren eta ongizatearen sorrera jarduera ekonomikoaren bultzadaren oreka zailean eta sistemaren iraunkortasunarekiko errespetuan gertatzen da, erakunde politikoek mugak ezartzeko edo, hala badagokio, ekintzak sustatzeko betetzen duten zeregina oinarri hartuta. Guztiok oso argi daukagu eta barneratu dugu pandemiak bizkortu egin digula ingurumenaren iraunkortasunaren premia larria eta gizarte honetako pertsona guztien zaintza, eta horretarako ezinbestekoak dira eragile guztiak.

DEMAK osatzen duen talde apartak bere onena ematen jarraituko du ahalegin horretan. Beti egin dute eta, orain, ahal bada, determinazio, ahalegin eta energia puntu gehigarri batekin egingo dugu. COVID19ak bakoitzak onena ematea eskatzen digu, eta eskakizun horren mailan egongo gara.

Idea berriak eta proiektu berriak, DEMAKO taldearen gogo biziarekin batera sortu zeneko lana egiten jarraitzeko, lan horrek, argi dagoen bezala, ataza horrek bere horretan jarraitzen duelako.



jarduera ildoak



enpresari
Ekintzailletza
Lanbide
Heziketan

taldeka
Ekintzailletza
Taldeak



indartu
Enpresen
Sendotzea eta
Hazkundera



eskutik
Martxan
Jartzea



abian
Enpresen
Sorkuntza





enpresari

PROGRAMA

Ekintzailetza Lanbide Heziketan

ENPRESARI kultura ekintzailea eta enpresa kultura sustatzeko programa da, espezifikoki Lanbide Heziketako kolektiboarentzat diseinatua.

Prestakuntza ziklo publiko zein pribatuak eskaintzen dituzten Bizkaiko ikastetxe guztiei zuzenduta dago, eta erdi eta goi mailako ikasle eta irakasleei.

2020an, egoerari eta pertsonen beharrei egokitzeko, jarduera guztiak online eta aurrez aurre egiteko aukera eskaini dugu, eta ikastetxeen beharrei erantzuteko, saio kopurua biderkatu dugu, edukieren murrizketa dela eta. Irakasleen, ikasleen eta programako aholkulari taldearen lanari eta ahaleginari esker egin ahal izan dugu hori guztia.

- Enpresa ekintzailetzako eta Ideiak garatzeko tailerrak eskaini dira, bai online bai aurrez aurre, eskaeraren arabera.
- Ideia Lehiaketa egin da, bi modalitatetan: idatzizko eta ikus-entzunezko aurkezpenak. Hautaketa egiteko elkarrizketak batik bat aurrez aurre egin dira, ikastetxeek eskatutakoari jarraikiz, formatu horren alde egin baitute gehienbat.
- Enpresa Proiektuak 2019-2020 deialdiko 184 parte hartzaileek programako aholkularien laguntzarekin (aurrez aurreko bilerak martxoaren 14ra arte eta online ordutik aurrera) lan egin duten lau hilabeteetan egin dira.
- Irakasleei eta ekintzaile taldeari zuzendutako bi prestakuntza ekintza egin dira, aurrez aurre eta espazio handitan, parte hartu duten pertsona guztiek behar adina leku izateko.
- Azkenik, sariak banatzeko ekitaldia irailean egin zen, Bilboko Alondegiko auditorioan.



HELBURUA:
Bizkaiko gazteen artean
enpresako kultura
ekintzailea sustatzea.



**KOLEKTIBO
ONURADUNA:**
Bizkaiko Lanbide
Heziketakoa
zentroetako ikasleak
eta irakasleak.

ENPRESARI PROGRAMA 2019/2020KO ENPRESARI IDEIEN LEHIAKETA -BIDEO SARITUAK



ENPRESARI PROGRAMAKO PROIEKTU SARITUAK



ENPRESARI PROGRAMA EMAITZAK 2020

	TAILERRAK			IDEAK			PROIEKTUAK		
	Zk.	ZENTROAK	PARTE HAR.	IDEAK	ZENTROAK	PARTE HAR.	PRO.	ZENTROAK	PARTE HAR.
2020	122	26	1.908	216	24	563	70	22	184
2001etik aurrera	1.821		37.397	3.438		8.790	863		2.310



abian

PROGRAMA

Enpresen sorkuntza

ZERBITZUAREN DEFINIZIOA:

Honako fase hauetan egituratuta dago programa:

- **KUDEAKETARI BURUZKO PRESTAKUNTZA**

Iraupena: 30 ordu

Edukia:

- Proiektu bat aztertzeko punturik garrantzitsuenak
- Legezko izapideak eta alderdi juridikoak
- Enpresa kudeatzeko oinarriko kontzeptuak

- **NEGOZIO PLANERAKO AHOLKULARITZA**

Edukia: Aldian behin bilerak egingo dira banaka, eta, berariazko metodologia erabilia, proiektuan esku hartzen duten aldagaiak aztertuko dira, negozio plana garatuko da, eta plan horrek bide emango du enpresa abian jartzeari buruzko azken erabakia hartzeko. Osagarri gisa, DEMAK aukera eskaintzen du enpresari aplikatu ahal zaizkion laguntzen mapak egiteko eta autoenplegurako BFA Bizkaiko Foru Aldundiaren diru-laguntza izapidetzeko.

- **PROIEKTU BIDERAGARRIA > ENPRESA MARTXAN JARTZEA**

Laguntzak: Aholkularitza zerbitzurako %100eko dirulaguntza, eta enpresa abian jartzeko gehienez 5.000 euroko diru-laguntza eskuratzeko aukera.

Epeak: Deialdia beti dago zabalik.

HELBURUA:

Enpresa -negozioak sortu eta abian jar daitezten sustatzea, negozio ideiak enpresa proiektu bihurtuz, bideragarritasun eta zehaztasun indize handiekin, aldiaren behin banakako aholkularitza eskeinin.



HARTZAILEAK:

Bizkaian erroldatuta dauden eta enpresa ideiarekin bat duten pertsonak.

ABIAN PROGRAMA EMAITZAK 2020

2020


Emandako ikastaro presentzialak (urtarrila/martxoa)	3
Pertsonak	58
Pertsonak (on line)	272
Negozio ideiak	684
Negozio planak	594
Sortutako enpresak	276

HISTORIKOA
1989


Emandako ikastaroak	178
Negozio ideiak	12.460
Negozio planak	6.657
Sortutako enpresak	3.372

ABIAN PROGRAMA PERTSONA EKINTZAILERAREN PROFILA 2020


GENEROAREN ARABERA
Guztira: 709



ADINAREN ARABERA
Guztira: 709



PRESTAKUNTZA AKADEMIKOA
Guztira: 709



NEGOZIO IDEIAK JARDUERA SEKTORESAREN ARABERA
Guztira: 684

• Nekazaritza eta abelzaintza	2%
• Eraikuntza	10%
• Merkataritza, konponketak	26%
• Garraioa eta komunikazioa	4%
• Finantza, aseguruak, enpresei emandako zerb.	4%
• Beste zerbitzu batzuk	22%
• Profesionalak	16%
• Artistak	3%
• Ostalaritza	13%



taldeka

PROGRAMA

Ekintzailletza taldeak

Honako fase hauetan egituratuta dago programa:

LEHEN FASEA:

Hilabetez 23 parte-hartzaileak modu intentsiboan lanean aritu dira, trebetasun pertsonalak eta pertsonen artekoak landu eta garatzeko tailerretan. Talde coaching teknikak landu dira, coach batek gidatutako eta dinamizatutako saioetan. Hori guztia startup proiektuak garatzeko metodologia espezifikoek baliatuta. 2021ean geroagoko faseetan laguntza ematen jarraituko dugu.

BIGARREN FASEA:

Hurrengo hilabeteetan, beren enpresa proiektua bideragarri egiteko eta monetizatzeko lanean jarraitzen dute. Horretarako, proiektu bakoitzerako laguntza teknikoa eta aholkularitza indibidualizatu eta espezifikoa -ad hoc- jasotzen dute. 2020an 8 enpresa-proiektu garatu dira, eta I. faseko 23 pertsonak hartu dute parte. 2020an, negozio-plana 2019ko azken deialditik etorritako 7 parte-hartzailek amaitu dute.

HIRUGARREN FASEA:

2020an zehar, aurreko deialdietatik eratorritako 7 enpresa martxan jarri dira. Guztiek Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailaren 2020ko autoenplegurako Laguntzen Dekretura sarbide promozionatua izan dute.



HELBURUA:

Langabetuak lanean aktibatzea, ekintzailetzan prestakuntza ematea eta %60ak bere lanpostua sortzea merkatuaren joera berrietara egokituz.




KOLEKTIBO ONURADUNA:

Taldeka - Digitala deialdia. Alor digitalean enpresak sortu nahi dituzten pertsonentzat.

TALDEKA PROGRAMA 2020KO ESTADISTIKAK
2020KO DEIALDIKO PARTE HARTZAILEEN PROFILA (DIGITALA)


GENEROAREN ARABERA

Guztira: 23




PROIEKTUEN JARDUERAREN ARABERA

Guztira: 8



TREBAKUNTZAREN ARABERA

Guztira: 23





eskutik

PROGRAMA
Abian jartzea

DEFINIZIOA

Programarako ad-hoc garatutako kudeaketa tresna aplikatzea. Laguntza espezifikoa ematea arlo hauetan: kostuak, marketin eta merkataritza, kostuen analisia eta prezioen zehaztapena.

Horrez gain, Taldeka Digitala programatik datozen enpresa digitaletarako laguntza tekniko berezia egokitu da. Enpresa horiek behar espezifikoak dituzte, sektore tradizionaletako enpresek ez dituztenak. Zehazki, garapen aldi oso luzeak dituzte, eta haien produktuek etengabe pibotatu behar dute. Bereziak dira ere, finantzaketa beharrei dagokienez.

2020. urtean, 2019ko bigarren seihilekoan hasitako aholkularitzak amaitzeaz gainera, aurreko Taldeka eta Abian programen arurreko deialdietatik sortutako 22 enpresa berrirekin hasi gara lanean.



HELBURUA:

Autoenpleguko enpresei eta proiektuei laguntzea jardueraren lehenengo urtean, haien beharretara egokitutako aholkularitza espezializatu baten bidez; horrela, jarraipena bultzatu nahi da enpresa baten bizitzaren garai kritikoenetako batean.



TALDE HARTZAILEA:

Taldeka - Ekintzaitza
Taldeak programaren eta Abian programaren deialdien babespean sortutako enpresak.

ESKUTIK PROGRAMA 2020KO EMAITZAK

	DIGITALA	ABIAN
Aholkatutako enpresa kop.	7	15

1

Soluzio akustikoak

2

Ikus-entzunezko marketina

3

Eduki eta interaktibitate digitalen azterketa

4

Ehun-gaien diseinua, prestaketa eta salmenta

5

Publizitate-pantailak saltzea

6

Telekomunikazio-ingeniaritza

7

Emakumeentza ko arroparen diseinua, hiri-estiloa

8

Hautzaintza ekologikoa eta amatasun kontzientea

9

Atsedeen sistemen merkaturatzea

10

Arte tailerrak

11

Hizkuntzen akademia

12

Kirol arloko marketin eta komunikazio agentzia

13

Naturopatia-zentroa

14

Industriako ak ez diren plateren catering-a

15

Ingurumen- eta nekazaritza-aholkularitza

16

Hautzaindegia

17

Irakasleentzako eta hezkuntza-materialentzako prestakuntza

18

Arkitekturaren azterketa

19

Software garapena

20

Karrozeria lantegia

21

Fruta-denda

22

Famili eta ekitaldien argazkilaritza

indartu

PROGRAMA

Enpresa finkapena eta hazkundera





HELBURUA:

- Enplegua mantentzea eta sortzea.
- Enpleguaren kalitatea hobetzen laguntzea.
- Bizkaiko enpresen dimentsioa handitzea, fakturazioaren eta/edo errentagarritasunaren arloan.
- Bizkaiko enpresen lehiakortasuna areagotzea.
- Zailtasunak dituzten enpresei laguntza ematea.

INDARTU PROGRAMA 2020KO EMAITZAK

2020. urtean 2 enpresekin hasi da lanean

ABELLA LEGAL

Berdintasunarekin eta gizarte eskubideekin zerikusia duten gaietan espezializatutako abokatuen bulegoa

5 langile
LEIOA

ELEKTRART, S.L.

Arte digitaleko instalazioak diseinatzea eta sortzea

2 langile
BILBAO

2020an, Covidek sortutako osasun-alertaren aurretik programan sartzeko eskaera ginen bi enpresa berrirekin baino ez da hasi aholkularitza.

Pandemiaren ondorioz, hausnarketa sakona egin behar izan da Indartu lerroan, eta 2021ean emaitzak lortzea espero da.

SAREKIN 2020
e-week

Ekintzaitzaren astea
Semana del emprendimiento

urria / octubre 26-30



sarekin

Ekintzaitza sarea

SAREKIN WEEK

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak eta Demak, Sarekin sareko agenteen laguntzarekin, SarekinWeek 2020 Bizkaiko Ekintzaitzaren lehenengo astea egin dute. Egitasmo horretan, hainbat jarduera eta ekitaldi egin dira, lan etorkizuna antolatzen ari diren eta ekintzaitza interesatzen zaien edo beren enpresa sortzen eta finkatzen ari diren pertsoneri baliabideak eman eta artatzeko.

Aste hori urriaren 26tik 30era antolatu zen, eta Bizkaiko ekintzaitzaren egunerokoari eta joerei buruzko jardueraz eta ekitaldiz beteta egon zen. Hasteko, inaugurazio biltzar bat egin zen Euskalduna Jauregian. 85 pertsona izan ziren bertan eta 184 pertsonak eman zuten izena online; hortaz, guztira, 269 izen emate egin ziren.

Gainerako 25 jarduerak streaming bidez eman ziren Sarekin Week egitasmoaren Youtubeko kanalaren bitartez. Jarduera horietarako 2.339 izen emate egin ziren, eta Sarekin sareko 32 erakunderen lankidetzak aktiboari esker antolatu ziren. Jarduera horietan 68 hizlarik hartu zuten parte.



SAREKIN

Bizkaia | ekinean
emprende



HELBURUA:

Bizkaiko ekintzailearen ekosistemako eragile guztien arten elkarlanean aritzea, lana sarean koordinatzeko, baliabideak bateratzeko eta lurraldeko ekintzaileei eskaintzen zaizkien zerbitzu eta laguntzak hobetuko dituzten ekintzak planifikatzeko.



TALDE HARTZAILEA:

- Ekintzaileen komunitatea
- Ekintzailearen arloko agente eta erakundeak

Astean horretan, halaber, honako hauek eskaini zitzaizkien ekintzaileei:

- **Aholkularitza zerbitzu bat**, gehienez 30 minutuko banakako elkarrizketa telematikoeekin; elkarrizketak aurrez hitzordua eskatuta hitzartu ziren, gai espezifikoren bati buruzko kontsultei erantzuteko. Aholkularitza pertsonalizatuko 41 eskaerari erantzun zitzairen.

- **Matchmaking**, negozio aukerak bilatzeko eta lankidetzako benetako aukerak lortzeko formula eraginkorrenetako bat. 175 pertsonak hartu dute parte networking horretan.

SAREKIN WEEK ASTEAREN EMAITZAK

IZEN EMATEAK, GUZTIRA	2.824
JARDUERA KOP.	30
HIZLARIAK	68

IZEN EMATEEN XEHAKAPENA	
Biltzarra	269
Aurrez aurre	85
Online	184
Jarduerak	2.339
Aholkularitza	41
Matchmaking	175

IZEN EMATEAK, KOLEKTIBOEN ARABERA

Zehaztu gabe	24,1%
Enplegu-ekintzaile profesionala	22,2%
Ekintzailea	23,9%
Langabea	12,6%
Enpresaria	8,5%
Unibertsitateko ikaslea	1,9%
LHko ikaslea	6,8%

Sarekin Week egitasmoaren lehenengo edizioaren balorazioa oso positiboa izan da bai parte hartzaileen aldetik bai Sareko agenteen aldetik. Hain zuzen, azpimarratu dute online formatuari esker, pertsona interesdun, erakunde eta ikastetxe gehiagok parte hartu ahal izan dutela.

SarekinWeek 2020 programaren egitarau osoa eta xehatua ikus daiteke esteka honetan: www.sarekinweek.eus.



anezka

PROGRAMA

Enplegu eta ekintzailletza anezkak

DEFINIZIOA

Anezkak pertsona langabe, boluntario, aktibo, sozialki ikusgarri eta solidarioen talde heterogeneoak dira, koordinatzaile baten laguntzarekin antolatzen direnak, enplegu bilaketa sustatzeko, bai besteren kontura bai norbere kontura; izan ere, taldekide guztiak lan merkatuan sartzeko hainbat bide eta modu aztertzen dituzte.

2020KO JARDUNA

- Jarraipena eman zaie 2019an abiarazitako 4 anezkei, martxoan amaitu arte. Bertan 82 langabek parte hartu dute, horietatik 59 emakumeak. Parte hartzaileen % 56k laneratzea lortu du.
- Bi anezka oso egin dira; 2020ko otsailean hasi eta ekainean amaituak. Guztira 39 pertsonak parte hartu zuten, horietatik 25 emakumeak, eta % 56ko laneratze tasa lortu zen.
- Lau anezka jarri dira abian eta gutira 60 langabek parte hartu dute. Parte hartzaileen % 63 emakumeak dira.

ANEZKA 2020KO EMAITZAK

ANEZKAK	PARTE HARTZAILEAK	E/G	LEKUA	AMAIERA DATA
BILBAO X	19	11/8	Bilbao	2020ko ekaina
EZKERRALDEA VII	20	14/6	Barakaldo	2020ko ekaina
BILBAO XI	15	9/6	Bilbao	2021eko martxoa
EZKERRALDEA VIII	15	9/6	Barakaldo	2021eko martxoa
ESKUINALDEA IV	15	9/6	Getxo	2021eko martxoa
NERBIOI IBAIZABAL IV	15	11/4	Bilbao	2021eko martxoa
GUZTIRA 6 anezka	99	63/36		

	ANEZKAK	PARTE HARTZAILEAK	E/G	LANERATZEA
2020	6	99	63/36	-
Historikoa	33	655	421/234	60,84%



HELBURUA:
parte hartzaile guztien gaitasun pertsonalak eta enplegarritasuna hobetzea.



HARTZAILEAK:
Langabezian diren edo enplegua hobetzeko prozesuetan izena eman duten pertsonak, betiere haien lanak ez badie galarazten anezkara joatea.

Anezka-Prest

ERANTZUN BAT COVID-19REN ERAGIN TXARRENETAKO BATI: LANGABEZIAREN GORAKADA ETA LAN PREKARIETATEA

Definizioa: zuzeneko jarduna, profesional baten laguntzaz, % 100 digitala eta intentsiboa, enplegua bilatzeko mugarri eta tresna funtsezkoenak lantzen dira taldeko saioetan eta saio indibidualetan, eta adituekin eginiko tailerren bidez.

Helburua: pertsonen lana bilatzeko estrategia bat diseinatzen laguntzea, hala haien enplegarritasuna hobetzeko, lan merkatuak aukerak eskaintzen dituenean haiek hobeto antzemateko eta aprobetxatzeko gai izan daitezzen.

Hartzaileak: Covid-19ak eragindako krisiaren ondorioz legezko langabezia egoeran dauden pertsonak eta 30 urte arteko gazte langabeak.

2020ko jarduna: Anezka Presten bi talde egin dira:

- 30 urtetik gorako pertsonen taldea: 17 parte hartzaile; horietatik 6k lanarekin amaitu zuten jarduna, 3k prestakuntzan eta gainerakoek enplegu bilaketa aktiboan.
- 30 urtetik beherako gazteen taldea: 16 parte hartzaile; horietatik 7k lanarekin amaitu zuten jarduna, 6k ikasten jarraitzea erabaki zuten eta gainerakoek enplegu bilaketa aktiboan.

	TALDEAK	PARTE HARTZAILEAK	E/G	LANERATZEA
2020	2	33	25/8	40%

EnLANzar

ENPLEGUA BILATZEN JARRAITZEN DUTEN LANGABENTZAKO LAGUNTZA

Zerbitzuak:

1. Orientazio zerbitzua: banakako 62 orientazio bilera egin dira.


2. Jardueren programazioa:

- Networking saioak enpresekin
- Gaitasun digitaletan buruzko tailerrak
- Negozio ideiak garatzeko jarraipen saioak

3. Komunikazio tresnak: plataforma informatikoaren helburua programaren hartzaileei informazioa ematea izan da, honako gai hauen inguruan: lan eskaintzak, eta intereseko jarduerak eta ekimenak. Mezularitza bidezko informazio zerbitzu honen bidez, aukera hauek eskaini zaizkie parte hartzaileei:

32 prestakuntza deialdi, 44 ekitaldi, hitzaldi eta kongresu, 29 esteka interesgarri, langileak kontratatzen dituzten enpresei, lan poltsei eta sare sozial profesionalen buruz, 119 lan eskaintza, 5 enplegu eta prestakuntza gida.

Eginiko ekintzetan 200 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.



banbalina arteko lanbideak II

PROGRAMA

(Karakterizazioa) Enplegu eta prestakuntza programa

PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

Banbalina arteko Lanbideak II -karakterizazioa-, Enplegu eta Trebakuntza Programa, DEMAK Pabelloi 6 Arte Eszenikoen Sortzaileen Elkartearekin lankidetzarekin burutu du.

Programa honen bidez, langabezian dauden 16 pertsona trebatu dira eta benetako lan esperientzia bat izan dute arte eszenikoetako lanbide batzuetan akonpainamendu eta tutoretza lanekin.

Programaren bidez, 16 emakumek bi adarretan espezializatutako lanbide osagarriak ikasi dituzte:

- Karakterizazioaren artea, arte eszenikoei zuzendutako makillajearen eta ile-apainketaren bidez.
- Jantzi eszenikoak diseinatu eta egitea.

Sektorean eskaera handia duten bi espezialitate horietan lan egin da, parte-hartzaileek aukera eta errealizazio profesionalerako nitxo bat aurki dezaten arte eszenikoen industrian kokatutako jarduera batean.

Hauek hautatu ziren:

8 emakume, Arte Eszenikoei zuzendutako ile-apaindegi eta makillaje arloan trebatzeko eta lan egiteko.

8 emakume jantzi eszenikoen diseinuan eta jantzigintzan trebatzeko eta lan egiteko.

HELBURUA:

Oinarrizko prestakuntza izanik eszenarako karakterizazioan profesionalki garatu nahi duten pertsonak trebatzea eta lan esperientzia ematea, honako bi espezialitate hauetako batean:

- Ile-apainketa eta makillaje eszenikoa.
- Jantzi eszenikoen diseinua eta jantzigintza.

TALDE HARTZAILEA:

Lehentasunez, talde hartzaileak 44 urtetik gorakoak eta gazteak (30 urtetik beherakoak) izan dira.

LAN-KONTRATAZIO ETA LANPOSTUKO PRESTAKUNTZA PRAKTIKOAREN ALDIA

2020/01/07tik 2020/08/14ra, programan parte hartu duten 16 emakumeak **aldi baterako lan-kontratu baten bidez kontratatuta** egon dira. Programan zehar, zein taldetarako den kontuan hartuta, gizarte eta lan arloko laguntza eman da, parte hartzaileak merkatu arruntean sar zitezen prestatzeko.

Kontratazio-aldi horretan, 16 kontratudunek prestakuntza espezializatua lortu dute beren espezialitatearekin lotutako gaitan, prestatzaile adituen eskutik, bai ile-apaindegi arloan, makillaje artistikoan eta jantzigintza eszenikoan. Gainera, antzerkiko zein ikus-entzunezkoetako sorkuntza artistikoetan lan egin dute.

BANBALINA ARTEKO LANBIDEAK II PROGRAMA 2020KO EMAITZAK

	PARTE HARTZAILEAK	EMAKUMEAK	GIZONAK	LANERATZEA
2020	16	16	-	37,5%
Historikoa 2019tik	23	21	2	80%

IZEN EMATEAK 2019-2020	EMAKUMEAK	GIZONAK	ZEHAZTU GABE	DENETARA
	76	10	3	89

ADINA	30 URTETIK BEHERA	32 - 44 URTE BITARTEAN	44 URTETIK GORA
	5	4	7



millennial_{1000x1000}

PROGRAMA

Gazte enplegarritasuna

PROGRAMAREN DESKRIAPENA

Enpresen eta millennials gazteen arteko hurbilketa bultzatu nahi duen Curriculum kanpoko praktiken programa berritzailea da, bere enplegarritasuna hobetzeko.

PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUA

1. COACH ENPRESETAN PRAKTIKAK

Kudeaketa prozesu aurreratua duten Bizkaiko punta-puntako 9 enpresak (COACH ENPRESAK esaten zaienak) 15 ikasle (9 emakume eta 6 gizon) hartu zituzten 3 hileko praktikaldirako (2020ko azarotik 2021eko urtarrilera), euren kudeaketa eredu ongi ezagutu zezaten prestakuntza praktikoaren eta tutoretzaren bidez. Bekaren hileko zenbatekoa: 400 €.

COACH FASEAN PARTE HARTU ZUTEN ENPRESAK

AXA • AZURMENDI (GARIZA PRODUKZIOAK SL) • BCAM • BIZITEGI • GIZAKIA • GORABIDE • HISTOCELL • LANTEGI BATUAK • PARKE

2020ko otsailaren 4an enpresen eta parte hartzaileen arteko topaketa bat egin zen. Ekitaldi horretan, coach enpresek programaren lekukotza eman zieten erronka fasean parte hartzaileak hartuko zituzten enpresei.



HELBURUA:

“MILLENNIAL” belaunaldiko kideak lan merkatuan sartzen ari dira gaur egun, baina langabezia tasak oso handiak dira horien artean. Programa honen helburua da pertsona horiei besteren konturako lana aurkitzen laguntzea.



TALDE HARTZAILEA:

Laneratzeko zailtasun bereziak dituzten masterretako eta unibertsitateko graduetak 3. eta 4. mailetak ikasleak.

2. ERRONKA ENPRESETAN PRAKTIKAK

Kudeaketa prozesua hobetu nahi zuten 8 enpresak COACH fasean parte hartu zuten 11 pertsona (7 emakume eta 4 gizon) hartu zituzten 5 hilabetez (2020ko otsailetik ekainera). Parte hartzaileek ikasitakoa praktikan jarri zuten, nagusiki komunikazioarekin, produktuen merkaturatzearekin eta negozio planak egitearekin lotutako erronken bidez. Bekaren hileko zenbatekoa: 500 €.

ERRONKA FASEAN PARTE HARTU ZUTEN ENPRESAK

AISILAN • AUTORIDAD VASCA DE LA COMPETENCIA • CONTENEDORES VASCOS • ESKENA • ETORKI • EUSKADITALIA • IDEILAN • LALUCA

3. TUTORETZA ETA KONPETENTZIAK INDARTZEA

Programa garatu bitartean, parte hartzaileek tutoretza jaso eta laneratzeko beharrezkoak zituzten konpetentziak indartu zituzten.

MILLENNIAL 1000X1000 PROGRAMA 2020KO EMAITZAK

2020		HISTORIKOA 2018 TIK	
Parte hartzaileak	15	Parte hartzaileak	40
Emakumeak	9	Emakumeak	26
Gizonak	6	Gizonak	14
Laneratzea	40%	Laneratzea	70%
Enpresa parte hartzaileak	17	Enpresa parte hartzaileak	28



laborlan

*Enplegu eta prestakuntza
laborategi programa*

Laborlanen helburua, birkualifikazioa, lan-esperientzia eta laguntza integralaren bidez, parte hartzaileak lan-munduan sartzea da; proiektu piloto honetan Bizkaiko sektore garrantzitsuetako erakundeen esfortzua barne dagoelarik.

PROGRAMAREN MUGARRIAK

I. fasea: Prestakuntza: programa prestakuntza-fase intentsibo batekin hasten da, sektore gakoan espezialitateetan.

II. fasea: Lan esperientzia: prestakuntza amaitu ondoren, parte-hartzaileek sektoreko enpresetan lan-esperientzia eskuratzeko aukera eskeintzen da.

Zeharka: prozesu guztian akonpainamendu integrala ematen da, tutorizazioa eta orientazioa eskainiz, eta enplegurako gaitasunak eta trebetasunak eskuratuz.

ESPEZIALITATEAK

Bost sektore nagusienetako erakunde adierazgarriekin lankidetzeta-hitzarmenak egin dira, bai prestakuntza- eta gaitakuntza-programaren garapenean eta diseinuan parte hartuz, bai parte-hartzaileak lanean har ditzaketan enpresen prospekzioan.



HELBURUA:

LABORLAN programaren helburua bikoitza da:

1. Parte hartuko duten langabeen laneratzea lortzea, beharrezkoak dituzten gaitasunak emanez (teknikoak, pertsonalak eta esperientziari lotutakoak), lanbide bat aurkitu dezaten langile gaituen eskaera handia eta langile horien gabezia duten sektoreetan.

2. Bizkaiko enpresen lehiakortasuna hobetzea, gaitasun profesionalak beren oraingo eta etorkizuneko eskakizunetara egokituta.



TALDE HARTZAILEAK:

- Iraupen luzeko langabeak (12 hilabete baino gehiago).
- 45 urtetik gorako langabeak.
- Eskatutako espezialitatearen araberrako titulua duten gazteak (30 urtera arte).
- Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden gazteak (30 urtera arte).

Talde horietan guzietan emakumeentzako kuotak gorde dira.

1.- Gozotegia: Bizkaiko Gozogintza-Pastelgintza Artisauen Gremioarekin lankidetzan, bi lanbide hartu dira barne: pastelgintza-lantegi laguntzailea eta gozotegiko saltzaile laguntzailea.

2.- Psikologia: Psikologiako Elkargo Ofizialarekin batera, erakunde psikologia positiboan adituaren espezializazioa bete da, helburua, langileek hainbat arloetan dituzten eta laneko produktibitatean eragiten duten arazoak antzeman eta konpontzeko.

3.- Programazioa: GAI Aren (Jakintza Industrien eta Teknologia Aplikatuaren Elkarteak) eskutik, software aplikazioen garatzaileak prestatu dira teknologia.Netarekin.

4.- Industriaren sektorean, eta lanbide heziketako ikastetxe ordezkarriaren elkarrekin batera (IKASLAN eta HETEL), fabrikazio mekaniko eta industria fabrikazio eta soldadurako profesionalak prestatu dira.

5.- Pertsonen errepede bidezko garraioa belaunaldi aldaketako prozesu batean dago, eta komunikazioan, enpatian eta asertibotasunean indartutako gizarte konpetentzia eta trebetasun handiagoko profilak eskatzen ditu.

		EMAKUMEA	GIZONAK	ZEHATU GABE
IZEN EMATEAK, GUZTIRA	605	314	285	6
I. FASEKO (prestakuntza)	112	56	56	-

ekitaldiak

2020

Partaidetza azoketan



Demak eta Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailak parte hartu duten ekitaldiak, beren zerbitzuen berri emateko eta enpleguaren eta ekintzailetzaren arloan herritarren esku jartzen dituzten programei buruzko informazioa emateko.

UPV/EHUko ENPLEGU FOROA

EGUNA: 2020ko martxoaren 10a

LEKUA: Bizkaia Aretoa.

ANTOLATZAILEA: UPV/EHU.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailak eta Demak (Enplegu eta Ekintzailatza Agentzia) UPV/EHUK antolatutako bigarren enplegu foro hori babestu eta bertan parte hartu zuten. Foroaren helburua zen ikasleen eta egresatuen artean enplegarritasuna sustatzea, enprekin topagune bat sortuz, eta, horrela, Bizkaiko enpresa ehuneko enplegu eskaintzetara hurbiltzea eta ezagutzea, eta haietan beren burua ezagutarazteko aukera izatea.

Foroaren erakunde babesle gisa, Lanbide (Eusko Jaurlaritzaren Euskal Enplegu Zerbitzua), Bizkaia Talent, Bilboko Udala eta Basque Trade & Investment erakundeak ere han izan ziren.

65 enpresak egin zituzten elkarrizketa pertsonalak aurkeztutako 169 enplegu eskaintzetarako profil profesionalak aurkitzeko. 450 pertsonak bisitatu zuten foroa.

BILBAO BISCAY STARTUP CAMPUS (BBSC)

EGUNAK: 2020ko irailaren 24a eta 25a.

LEKUA: Azkuna Zentroa.

ANTOLATZAILEA: Startup Campus eta Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Foru Sailak eta Demak Local Partner gisa babestu dute Biscay Bay Startup Campus ekintzailatza biltzarra. Egitasmo horren helburua da berritzaileen belaunaldi berriak babestea eta sortzea, eta, halaber, pertsonak elkartzen direnean sortzen den lankidetzahala sustatzea.

Bilbao Biscay Startup Campus (BBSC) egitasmoak inpaktu globala duten gaiei buruz kontzientziatzea izan du ardatz. Open Innovation programari esker, lankidetzazko berrikuntza sustatu du bereziki, eta erakunde guztiei merkatuko azken berritasunekin konektatuta egoteko aukera eman die. Hitzaldiak eta networking jarduerak egin dira hainbat gairi buruz: deep tech, hezkuntza, inbertsioa, marketina, lidergoa eta ingurumen iraunkortasuna, besteak beste.

DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO FOROAK ETA BEC-EKO WORKINN

Aurten, COVID-19aren pandemia eta 2020ko martxoan ezarritako neurriak tarteko, ezin izan dira egin.

SAREKIN | 2020

e-week



 **Bizkaia**
dema

Barakaldo Ekartegia - Fanderia, 2
48901 Barakaldo (Bizkaia)
Tel.: 94 418 90 55
Fax: 94 437 94 36
info@dema.eus
www.dema.eus

